

MARTÍN de BERTENDONA

1530 – ¿1607?

Martin Bertendona almirantea XVI. mendeko Itsas Armadaren beste pertsonaia handi bat da. Bilbon jaio zen eta Frantziaren aurkako gerra garaietan Ozeanoa zeharkatzen zuten itsas bidaietan txikitatik hasi zen eta berehala lortu zuen agintarien konfiantza. Koroaren zerbitzura asko ibilitako itsas familia bateko kidea zen. Aitak berak, Martín Bertendona Gondrak, 1554an gero Felipe II.a izango zen Felipe erregegaia Ingalaterrara eraman zuen bere ontzian, Maria Tudorrekin ezkontzeko. Felipe erregegai berak berarekin zihoazen Bizkaiko eta Gipuzkoako ontzi askoren artean Bertendona Gondraren ontzia aukeratu zuen bidaia egiteko. Martin Bertendona semea, denboraz Espainiako Armadaren zerbitzuan ibili zen Flandriako kanpainan eta lurralde horretan Albako Dukeak izan zuen agintaldiaren amaierako gertakizunetan nabarmendu zen, batez ere 1573an izandako Enckhuyseneko Itsas batailaren porrotaren ondoren. Luis Requesens gobernadore berriaren ontzietan zerbitzatu zuen, eta horrek bake politika landu bazuen ere, 1574an Flandriako probintzia gehienak matxinatu ziren eta Middelburgh-era joan behar izan zuen laguntza ematera. 1579ko Utrecheko bateratzearen eta 1585eko Anbereseko kapitulazioaren bitartean Martin Bertendona mailaz igo zen berehala, bere ausardiarengatik eta itsasoaren ezagutzarengatik, eta Armadaren jeneral izendatu zuten. 1587tik aurrera *Garaiezinaren* prestatze lanetan jardun zuen eta 1588an Britainiako Kostaldearen aurkako erasoan Levante edo Italiako eskuadraren agintea eskuratu zuen. Bere ontzia, guztira 1549 tona-zama eraman zezakeen *Ragazzona* izeneko ontzi indartsua zen. Baina ontzidiaren porrotaren ondoren Bertendona kosta ahala kosta heldu zen Coruñaara. Ekaitzen ondorioz *Ragazzona* ontzia Ferrolen enkailatu zen zuakerrak agerian utziz eta olatuen indarra pairatuz. Hala ere, ontziaren kanoi handiak berreskuratu ziren eta Galiziako kostaldea ingelesen aurka defendatzeko erabili ziren geroago. 1590etik Felipe II.a hil arte (1598) hainbat ontzitan ibili zen; besteak beste, Britainiako ontzia menperatu zuen Azore inguruko kanpainan ibili zen 1591n, eta baita ere Kantauri eta Calais arteko itsasbideak zabalik mantentzen zuten Atlantikoko eskuadra arinen agintean. 1602 eta 1603 bitartean eta Luis Fajardo Almirantearen bitartez, Ingalaterrako eta Holandako etsaiari aurre egiteko Bizkaiko Eskuadra eta, beraz, Kantauriko eskuadraren muina izango ziren hamar galeoi euskal ontzioletan egiteko ituna sinatu zuen Felipe III. arekin. Baina pixka bat geroago hilko zen penintsula iparraldeko kosta defendatzeko egin zituen ahaleginak burutu gabe.

El almirante Martín de Bertendona es otro de los grandes pilares de la Armada del siglo XVI. Natural de Bilbao, se halló desde temprana edad en las singladuras oceánicas durante las guerras contra Francia, ganándose pronto la confianza de sus mandos. Formaba parte de una importante saga familiar marinera muy cercana a la Corona. Precisamente su padre, Martín de Bertendona y Gondra, fue quien en 1554 trasladó al entonces príncipe Felipe, futuro Felipe II, hasta Inglaterra en su nave al objeto de contraer matrimonio con María Tudor. El príncipe Felipe eligió personalmente el barco de Bertendona y Gondra de entre los muchos buques guipuzcoanos y vizcaínos que le habrían de acompañar. En el caso de Martín de Bertendona hijo, éste pasaría con el tiempo a servir en la Armada hispana de los conflictos de Flandes, destacándose en las acciones del final del gobierno del duque de Alba sobre aquel territorio, especialmente tras la derrota naval de Enckhuysen de 1573. Incorporado a las unidades navales del nuevo gobernador Luis de Requesens, quien intentó llevar una política de pacificación, hubo de participar sin embargo en el socorro de Middelburgh durante 1574, al haberse rebelado de nuevo la mayoría de las provincias flamencas. En el período comprendido entre la Unión de Utrech de 1579 y la capitulación de Amberes de 1585, Martín de Bertendona asciende rápidamente por su valía y conocimientos náuticos, siendo nombrado entonces general de la Armada. Desde 1587 formó parte activa de los preparativos de la *Invencible*, asumiendo el mando de la Escuadra de Levante, o Escuadra de Italia, en los ataques contra la costa británica de 1588. Su nave era en aquel tiempo la poderosa *Ragazzona*, de 1.549 toneladas de carga total. Sin embargo, tras el desastre de la Flota, el regreso de Bertendona a La Coruña resultó harto complejo, pues como consecuencia de los temporales la *Ragazzona* terminó encallada en El Ferrol, prácticamente con las cuadernas a la vista por la furia de las olas. No obstante, pudieron recuperarse los grandes cañones del navío, que sirvieron en 1589 para la defensa de la costa gallega contra los ingleses. Entre 1590 y la muerte de Felipe II en 1598 lo encontramos en la expedición de las Azores de 1591, donde sería derrotada la Flota británica, así como al mando de las escuadras ligeras del Atlántico para mantener el paso abierto desde el Cantábrico a Calais. Entre 1602 y 1603 concertó con el rey Felipe III, a través del almirante Luis Fajardo, un asiento para la construcción de diez galeones en astilleros vascos, médula espinal de la Escuadra de Vizcaya y por tanto de la Escuadra del Cantábrico, a fin de contraatacar a los enemigos anglo-holandeses. Sin embargo, moriría tiempo después sin ver concluidos todos sus esfuerzos para la defensa del litoral septentrional de la Península.

Admiral Martín de Bertendona is another of the great pillars of the 16th century Navy. He was from Bilbao and took part in the wars against France at an early age; he soon won the trust of his superiors. He came from an important maritime family that had excellent relations with the Crown. His father, Martín de Bertendona y Gondra, had taken the then Prince Philip, future Philip II, to England in 1554 in his ship to marry Mary Tudor. Prince Philip personally praised Bertendona y Gondra's ship, distinguishing it from among the many ships from Guipuzcoa and Biscay that escorted him. Martín de Bertendona, the son, eventually served in the Spanish Fleet during the conflicts in Flanders, where he excelled in action during the last period of the Duke of Alba's government in that territory, especially after the naval defeat of Enckhuysen in 1573. Once he joined the naval units of the new governor, Luis de Requesens, who tried to introduce a policy of pacification, he had to take part in the relief of Middelburgh in 574, when most of the Flemish provinces rebelled again. Between the Union of Utrecht in 1579 and the Capitulation of Antwerp in 1585, Martín de Bertendona was swiftly promoted thanks to his ability and maritime knowledge, until he was appointed General of the Navy. After 1587 he took an active part in preparing the *Spanish Armada*, taking command of the Eastern Squadron or the Italian Squadron during the attacks against the British coast in 1588. At that time, his ship was the powerful *Ragazzona*, of 1,549 tons. However, after the disastrous events suffered by the Fleet, his return voyage to Corunna became very difficult and, finally, due to the stormy weather, the *Ragazzona* ran aground at El Ferrol, practically with her ribs visible due to the fury of the waves. Nevertheless, the ships large cannons could be salvages and were used in 1589 to defend the coast of Galicia against the English. Between 1590 and the death of Philip II in 1598, we find Bertendona on the expedition to the Azores in 1591, where the British Fleet was defeated, and in command of the light Atlantic squadrons that kept the route from the coasts of northern Spain to Calais open. Between 1602 and 1603 he arranged with King Philip III, through Admiral Luis Fajardo, a commission to build ten galleons at Basque shipyards, that would become the core of the Biscay Squadron and, therefore, of the Bay of Biscay Fleet, with a view to counterattacking the English and the Dutch. Unfortunately, he died some time later before all his efforts in defence of the northern coasts of the Peninsula were finished.

MARTIN de BERTENDONA